

BAZTANGO IBILBIDEAK

15 IBILBIDE

Baztango bailara naturaz eta paisaiaz gozatzeko inguru aparta da. Eskualdea hobeto ezagutzeko Baztango Udalak hainbat mendi ibilbide eta bidexka prestatu eta balizatu ditu. Bi motatakoak dituzu:

- **PR-Ibilbide Laburra:** 6 ibilbide, marka txuri-horiez balizatuak, eta 8-15 km luze. Zailtasun erdikoak eta egun osoan edo erdian egitekoak. Mendiko botak eta ekipoa beharrezkoak dira.
- **SL-Herri Bidea:** 9 ibilbide, marka txuri-berdez balizatuak, eta 2-8 km luze. Kondizio normaletan, zailtasunik gabekoak eta 2-4 orduetan egitekoak. Batzuk ibilbide tematikoak dira (megalitikoak, kulturalak,...).

Ibilbide hauek Baztango bailara zeharkatzen duten trazaketa luzeko bertze ibilbideekin gurutzatzen dira:

- **GR-11 “Pirineoko Ibilaldia”:** Kintoa-Elizondo-Eskisaroi
- **GR-12 “Euskal Herriko Bidea”:** Urkiaga-Kintoa-Artesiaga-Belate
- **“Santiagoko Bidea”:** Ainhoa-Urdazubi-Amaiur-Elizondo-Belate

Lehenengo biak seinalizatuak eta txuri-gorriez balizatuak: GR-12 ibilbidea 2007 urtean berriua eta GR-11 ibilbidea 2008 urtean zehar egitekoa.

“Santiagoko Bidea” norabide bakarreko gezi baliza horiekin agertzen da.

Ibilbide hauek (Aratxuri-Belatekoa eta Santiagoko Bidea izan ezik) Mendi Federazioaren (MEKNF) arautegiaren arabera homologatuak edo homologatzeko bidean daude (2008 urtean).

Ibilbide batzuk elkar gurutzatu eta konplementatzen dira. Haiek oinarritzat hartuta, zerorrek zure ibilbidea Baztanen barna osatzen ahal duzu.

MEGALITISMOA

Baztango udalerrian monumentu megalitikoek duten garrantzia dela eta, atal berezi bat eskeini zaio. Egokitu eta seinalizatu diren 15 ibilbideetatik, 9-tan hainbat ondare megalitiko aurkitzen da; 5 ibilbidetan gai nagusia da.

Megalitismoaren informazioa “Baztan Edesti Aurreko Oroitarriak” liburuan dokumentatua dago, Josu Cabodevillak eta Itziar Zabalzak egindakoa eta Nafarroako Gobernuak 2006 urtean argitaratua. Bertan 600 megalito katalogatu dira, horietatik 120 baino hainbat ibilbide balizatu hauetan agertzen direlanak.

ZER INFORMAZIO AURKITUKO DUT?

NOLA DAGO ANTOLATUA?

- A) **Informazio folletoa:** “BAZTAN. MAPA ETA IBILBIDE BALIZATUAK”, Baztango Udalak argitaratua. Ibilbideen oinarritzko informazioa eta megalitoen kokapena (zehaztasunik gabe), 1:50.000 mapan. Formato errexa eta erabilgarrian argitaratu da, Turismo Bulegoetan dohainik banatzen dena.
- B) **Bertako seinalizazioa:** ibilbide bakoitzak informazio panela hasieran (folletoan kokatua eta identifikatua) eta hainbat poste eta indikadore badu. Ibilbideak balizatuak daude, Herri Bidexka – SL - edo Ibilbide Laburra – PR -, distantzia eta zailtasunaren araberez. Zenbait lekutan megalitismoari buruzko panelak aurkitzen dira.
- C) Elizondoko **“Jorge Oteiza” Etnografia Museoa** (Puriosenea Etxea): bertan Soalar-eko zutarri ikusgarria eta Baztango megalitismoari buruzko oinarritzko dokumentala ikusgai aurkituko dituzu.
- D) **WEB gunea:** informazio gehiena eta eguneratua hemen aurkituko duzu, **IBILBIDEAREN KARPETA** hain zuzen, ibilbidea egiteko deskribapen lagungarria eta seinalizatutako ondare megalitikoari buruzko azalpen zehatzak dituena.

WEB GUNEA ETA IBILBIDEAREN KARPETA

- 1) **Ibilbidearen deskripzio zehatzaren dokumentua:** distantziak eta erreferentziak (orientazioa) aurkituko dituzu, Baztango Udalak argitaraturiko folletoaren osagarri gisa. Monumentu megalitikoak katalogoko zenbakiarekin (“ikus fitxa XX”) agertzen dira bakarrik, 2. dokumentuan zehazten direnak.
- 2) **Monumentu megalitikoaren (ibilbidean bada) dokumentua:** euskeraz eta erderaz, sektoreko azalpena eta ibilbideetan seinalizatutako megalitoen informazio zehatza. ERNE: kontserbazio, akzesibilitate,...arrazoiengatik ez dira agertzen ezagutzen diren megalito guztiak; horregatik numerazioa ez da korrelatiboa. Halaxe, Baztango udal eremutik kanpo dauden megalitoen fitxak zenbakirik gabe agertzen dira, baina gune megalitikoaren barruan kokatuak eta deskribatuak; honela gune megalitikoaren osotasun zientifikoa mantentzen da.
- 3) **Ibilbidearen Track** dokumentua, SITNA-tik (Servicio de Información Territorial de Navarra) hartua, ez bertan eta GPS-en bidez; hau dela eta, alde txiki batzuk izaten ahal dira errealitatearekin. **Ibilbidea aurretik ikusi nahi baduzu**, honako pasoak egin behar dituzu:

Dokumentua zabaldu > Aukeratu Track osoa > Edizioa-Kopiatu > Sartu SITNAn (sitna.cfnavarra.es) > Klik “*Búsquedas Por Rutas GPS (2 D)*” > Lehiatila zabaltzen da > Bertan klik egin eskuineko botoiaz > Dokumentua atxeki (itsatsi) > Eskatu (*Petición*)

OHARRAK:

- **Distantzia eta desnibelak** akumulatuak edo totalak dira. Deskripzioaren barruan partzialak eta toki nagusietako altuerak aurkituko dituzu.
- **Zailtasuna:** ibilbideak progresio kondizio normaletan eskala orientatibo batean sailkatu dira: **ERREZA-ERTAINA-ZAILA-OSO ZAILA**.
- **I.I.D.E.:** ibilbidearen balorazio tekniko-deportiboa, Nafarroako Mendi Federakzioak (MEKNF) emana.

AHOLKU PRAKTIKOAK

- Mendian baldintza klimatologiko egokietan ibili: ez abiatu eguraldi txar, laino itxi, elurpean edo bero haundiekin.
- Lagunekin ibili: atsegina eta seguruagoa da.
- Errespetatu zure ingurunea eta lasai ederrean disfrutatu.
- Herri gune eta abere eremuetan zakurra lotua eraman behar da.
- Oinetako eta mendiko materiala egokiak, ura eta jateko zerbait eraman.
- SOS 112 telefonoa: Nafarroa gehienez hedatua bada ere, Pirineoko hainbat bazter eta mendi zokoetan hutsune haundiak daude.

Baztan gozatu, zaindu eta, bereziki,

ONGI IBILI !!